ATT: Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritza

Gaia: Bizkaibizi sistemako bizikleta partekatuentzako bi ainguratze-puntu itsas eta lehorreko jabari publikoan instalatzeko baimen-eskaera.

Plentziako Udalak interes berezia du Bizkaibizi izeneko bizikleta publiko partekatuaren sistema ezartzeko, mugikortasun jasangarria sustatzeko eta herritarrei garraiobide alternatibo, osasungarri eta ingurumenarekiko errespetuzkoa eskaintzeko helburuarekin.

Horretarako, beharrezkoa da bizikleta partekatuetarako ainguratze-puntu bi instalatzea itsaslehorreko jabari publikoko bi kokagunetan. Horien koordenatu geografiko zehatzak honako hauek dira:

Punto	Latitud	Longitud	Coordenadas (GMS)
Punto 1	43.403120	-2.946374	43°24'11.2"N 2°56'47.0"W
Punto 2	43.408579	-2.945512	43°24'30.9"N 2°56'43.8"W

Aurreikusitako instalazioak elementu modularrez osatuta daude; desmuntagarriak eta erraz instalatzeko modukoak dira, eta ez dute zimendatze-lanik edo obra zibilik behar. Ainguraketak lurrean finkatzen dira oinarri-plaken eta ainguratze mekaniko edo kimikoko sistemen bidez. Horri esker, beharrezkoa izanez gero, erraz kendu ahal izango dira eta espazio publikoa jatorrizko egoerara lehengoratu, ingurunean ahalik eta eragin txikiena sortuz.

Erabiliko diren materialak altzairua eta altzairu herdoilgaitza dira. Horien pisuaren gutxienez %30 material birziklatua izango da, eta birziklagarritasuna %95etik gorakoa izango da, UNE-EN ISO 9227:2017 araudiaren arabera. Horrela, hiri-ingurunean integratzea, eguraldi-baldintza gogorrei aurre egitea eta bandalismoaren aurkako babesa bermatzen dira.

Ainguratze-puntu bakoitzak bere kargagailu independentea izango du bizikleta elektrikoentzat, 42 V-ko karga-tentsioarekin. Estazio bakoitzerako kontratatu beharreko potentzia instalatutako ainguratze kopuruaren araberakoa izango da, eta

Sinatzaile / Firmante: PLENTZIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE PLENTZIA Data: 2026-09-18 09:01:48(UTC) Fecha: 18/09/2026 09:01:48 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: AITOR GARAGARZA CAMBRA Data: 2026-09-18 09:54:24(UTC) Fecha: 18/09/2026 09:54:24 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {5c2582f-9baf-41e2-8149-10adf06018a1} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

sistema modu modularrean handitu ahal izango da etorkizunean, obra osagarririk egin beharrik gabe.

Eskatzaileak konpromisoa hartzen du dagokion baimenean ezartzen diren baldintza tekniko, hirigintza-, ingurumen- eta segurtasun-baldintza guztiak betetzeko, baita instalazioak kontserbazio- eta garbitasun-egoera ezin hobean mantentzeko ere. Era berean, baimena amaitzen denean, instalazioak kentzeko eta espazio publikoa jatorrizko egoerara lehengoratzeko konpromisoa hartzen du.

Eskaera honekin batera instalazioen deskribapena, kokapena eta ezaugarriak jasotzen dituen dokumentazio tekniko eta grafikoa aurkezten da. Eskatzailea Administrazioaren esku geratzen da beharrezkoak izan daitezkeen argibide edo dokumentazio osagarri guztiak emateko.

ESKATZEN DU:

Idazki hau eta harekin batera aurkezten den dokumentazioa onartzea, eta, horren ondorioz, Bizkaibizi sistemako bizikleta partekatuentzako bi ainguratze-puntu adierazitako kokalekuetan instalatzeko itsas-lehorreko jabari publikoaren okupazioa baimentzen duen ebazpena ematea, dagozkion baldintzekin.

Adeitasunez,

Aitor Garagarza Cambra

Plentziako Alkatea

Digiltalki sinatua

Plentzian 2026ko irailaren 15ean

Sinatzaile / Firmante: PLENTZIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE PLENTZIA Data: 2026-09-18 09:01:48(UTC) Fecha: 18/09/2026 09:01:48 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: AITOR GARAGARZA CAMBRA Data: 2026-09-18 09:54:24(UTC) Fecha: 18/09/2026 09:54:24 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {5c2582f-9baf-41e2-8149-10adf06018a1} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.